



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du”

2023ko maiatzaren 7a
5. Pazko igandea (A)

Joan 14, 1-12.

“Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere. Nire Aitarenean toki asko dago; horrela izan ez balitz, esango nizuekeen. Orain, zuentzat tokia prestatzera noa. Joan eta tokia prestatu ondoren, berriro etorri eta neurekin eramango zaituztet, ni nagoen lekuan zuek ere egon zaitezten. Zuek badakizue ni noan tokirako bidea”.

Tomasek esan zion: Jauna, ez dakigu nora zoazen; nola jakin bidea?

Jesusek erantzun: Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue.

Orduan, Felipek esan zion: Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta aski dugu.

Jesusek erantzun: Honenbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du.

Nola diozu: “Erakutsiezaguzu Aita?” Ez al duzu sinesten ni Aitarekin bat eginda nagoela eta Aita nirekin? Nik irakatsi dizuedana ez dizuet neure kabuz irakatsi. Niregan bizi den Aita da bere salbamenegintza burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: ni Aitarekin bat eginda nago eta Aita nirekin. Besterik ez bada, sinetsi egiten ditudan egintzengatik. Benebenetan diotsuet: Niregan sinesten duenak, nik egiten ditudan egintzak eginen ditu berak ere, eta are handiagoak, ni Aitarengana bainoa.

Neu naz bidea, egia ta bizia. Jesus Aitagana bihurtzean Pazko ondoko eleizari arazo bat sortzen joko, Jesus aragi ezurrez ez izateaz.

EZ ZAITEZTE GELDITU JESUS GABE

José Antonio Pagola

Azken Afaria bukatzean, bereei agur esaten hasi da Jesus: jada ez da izango luzaro haiekin. Ikasleak nahasirik, zur eta lur gelditu dira. Argiro hitz egin ez dien arren, guztiek izan dute susmoa herioak laster eramango duela beren artetik. Eta, hura gabe, zer egin behar dute?

Lur jota ikusi ditu Jesusek. Haiek fedean indartzeko garaia da, Jainkoagan beste era batean sinesten erakutsiz: «**Ez dadila koloka jarri zuen bihotza. Sinetsi Jainkoagan eta sinetsi nigan ere**». Jainkoagan konfiantza izaten jarraitu behar dute, baina aurrerantzean Jesusengan ere sinetsi behar dute, hura baita biderik hobena Jainkoagan sinesteko.

Jesusek, gero, beste horizonte bat agertu die. Haren heriotzak ez du hondoratu behar fedea. Izatez, berak Aitaren misteriorako bidea hartzeko utziko ditu. Baina ez da ahaztuko haietaz. Gogoan izango ditu. Tokia prestatuko die Aitaren etxean eta egun batean itzuliko da haiek berekin eramateko. Azkenean berriro elkarrekin egongo dira betiko!

Ikasleei oso zail gertatu zaie halako gauza handios batean sinestea. Beren bihotzean era guztietako duda-mudak eta galderak sortu zaizkie. Antzeko zerbait gertatzen zaigu guri ere: Ez ote da hau guztia amets eder bat? Ez ote da ilusio engainagarri bat? Nork garantiza diezaguke halako zoria? Tomasek, betiko bere zentzu errealistaz, galdera bat egin dio: Nolatan jakin dezakegu Jainkoaren misteriorako bide hori?

Ustekabeko erronka da Jesusen erantzun hau: «**Neu naiz bidea, egia eta bizia**». Erligioen historian ez da ageri honelako baieztapen ausarditsurik. Bere burua eskaini digu Jesusek, Jainko Aitaren misteriorantz egin behar dugun bidetzat. Jesusek agertzen ahal digu bizitzaren azken sekretua. Jesusek komunikatzen ahal digu giza bihotzak antsiatzen duen bizi bete.

Asko dira gaur egun, Jainkoagana jotzeko, biderik gabe gelditu diren gizon-emakumeak. Ez dira ateo. Inoiz ez dute ukatu Jainkoa beren bizitzan era kontzientean. Berek ere ez dakite sinesten duten ala ez. Soilki, Eliza alde batera utzi badute, hartan bide erakargarririk aurkitu ez dutelako izan da; alegia, fededunek «Jainkoa» deitzen dugun bizitzaren azken misterio hori gustura bilatzeko, Elizan bide erakargarririk aurkitu ez dutelako.

Eliza uztean, batzuek aldi berean Jesus ere utzi dute. Lerro apal hauen bidez, jada aski jendek susmatzen duen zerbait esan nahi dizuet. Eliza baino handiagoa da Jesus, askoz gehiago. Ez ezazue nahasi Kristo kristauekin. Ez ezazue nahasi Jesusen ebanjelioa gure hitzaldiekin. Dena uzten baduzue ere, ez



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

zaitezte gelditu Jesus gabe. Harengan aurkituko duzue bidea, egia eta bizia, guk zuei agertzen jakin ez duguna. Harritzeko modukoa gerta dakizueke Jesus.

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org